



**OPOSIZIOAK  
ESPEZIALITATEKA ETA  
KONTRATAZIO ZERRENDA  
INTEGRATUEN KUDEAKETA  
NAFARROAKO  
IRAKASKUNTZA PUBLIKO  
EZ-UNIBERTSITARIOAN**





## **OPOSIZIOAK. Espezialitateka antolatuak.**

⇒ **Oposizioak bereizketarik egin gabe egitea, espezialitateka soilik banatuz:** Gaitasun gehiago dituenak (ingelesa, euskara, edo beste edozein hizkuntza zein profil, aukera eta eskubide gehiago, eta ez alderantziz). Arlo batean gaitasuna duen pertsona gai da zalantza izpirik gabe zenbait hizkuntzatan gauza bera irakasteko.

⇒ **Oposizio sistema memoristiko hau ez da izangaien gaitasunak neurtzeko tresna egokia.** Irakasle lanaren eta izangaiaren garapen integrala baloratuko duen sarbidea proposatzen dugu, non, epaimahaiak espezialitateka hizkuntza desberdinetan eta haien artean koordinatuak egon beharko diren. Elebidun direnek, noski, epaimahai baten aurrean aurkeztu ahalko dirabaina bi hizkuntzekin parte hartu ahalko dute.

⇒ **Ebaluazio irizpide zein gaitegiak zehatzak, garatuak, publikoak eta aurretik ezagunak izan beharko dira.**



## HAU DENA ALDATU NAHI GENUKE

ZERRENDEN KUDEAKETA INTEGRATUA ETA OPOSIZIOEN INGURUAN GURE PROPOSAMENA



### ZERRENDA INTEGRATUAK. Hizkuntzaren arabera banatzea akabo.

⇒ Espezialitate bakoitzean hizkuntzagatiko zerrenda bereziak 1991. urtetik datoz, eta **soilik Nafarroako Hezkuntza Publikoan ematen dira**, ez beste inon (Asturias, EAE, Valentzia, Galiza, Katalunia edo Balearretan zerrendak espezialitateka dira). Nafarroan bertan, zerrendak espezialitateka integratuak dira Osasunbidea, Nukleo administrazioan, Udal Haur Eskoletan edota ikastetxeetan lan egiten duten zenbait kolektibotan (administrariak, zaintzaileak, atezainak).

⇒ Egun espezialitate bakoitzean bi zerrenda daude: euskaraz eta gaztelaniaz. **Beste hizkuntzekin aldiz, hau ez da gertatzen** (frantsesa, alemana, zeinu hizkuntza...), kasu hauetan zerrendetan kode bidez gaitasun hauek gehitzen zaizkio izangaiari. Euskara eta gaztelaniarekin berdin jokatzeko eskatzen dugu. Momentu honetan, aplikazio telematikoan (ATP) pertsona guztiek parte har dezakete plazen esleipenean dituzten espezialitate guztiekin, baina ez hizkuntza guztiekin. Aukera hau gehitzea planteatzen dugu irmoki. **Berriz diogu, gaitasun gehiago, aukera gehiago.**

⇒ **Lan publikoaz ari garenez, ezinbestekotzat jotzen dugu zerrendak urtero birbarematzea** (2007 urtea arte maiatzero egiten zen) edota gaitasun edo profil berriak gehitzeko aukera izatea, baita zerrendak uneoro irekiak egotea izangai berriak sartzeko.



## HAU DENA ALDATU NAHI GENUKE

ZERRENDEN KUDEAKETA INTEGRATUA ETA OPOSIZIOEN INGURUAN GURE PROPOSAMENA



### OPOSIZIO ETA ZERRENDEN ARTEKO LOTURA. Arazoaren sorrera.

⇒ **2007 arte bereziak zeuden** eta urte horretan PPK (Nafarroan UPNk) sindikatu gehienon iritziaren aurka oposizio eta zerrenden arteko lotura (zerrendan jarraitzeko OPEra aurkeztu beharra) eta lehentasunezko zerrendak ezarri zituen, honek ekarri dituen kalte guztiekin (baremazio eza -gardentasun eza-, OPEra aurkeztu ezinagaitik kaleratzeak...).

⇒ Gure proposamenak (oposizioak espezialitateka, zerrenda integratuak, birbaremazioa) aurrera eramateko **ezinbestekoa da oposizio eta zerrenden kudeaketaren artean gaur egun dugun lotura haustea**, eta bereizirik kudeatzea. 55/2016 Foru araua aldatu orain!

⇒ Neurri honek elebakar diren pertsonak kaltetzen dituela eta aukera berdintasuna hausten duela entzuten dugu behin eta berriz prentsan eta kalean: Gainerako irakas-hizkuntzekin (alemana, frantsesa, ingelesa, zeinuen hizkuntza) inoiz inork ez du horrelakorik argudiatu, eta are gehiago, euskara hizkuntza propioa dugu!

**Gaitasun eta abilitazio gehiago, aukera gehiago!**



# HAU DENA ALDATU NAHI GENUKE

ZERRENDEN KUDEAKETA INTEGRATUA ETA OPOSIZIOEN INGURUAN GURE PROPOSAMENA



## AZALPEN PRAKTIKOA. Esleipenak.

### Orain arte -esleipen presentzialak-

Esleipen ekitaldira joan, eta Leirek dagoen zerrendetatik aukera gehien zeinetan duen erabaki beharra du. Era behartuan lanpostu bat hartuko du, hurrengo espezialitateko esleipenera itxoin gabe, deus gabe geratzeko arriskuagatik. Espezialitate bera gaztelaniaz zein ingelesez emateko gai izan arren, ezin du.

Zerrend. posizioa	Izena	Espezialitateak	Profilak	Prestasun egoera
147	Leire	Haur, Lehen Hezkuntza	PI	1

### Orain duguna. Hezkuntzatik hurrengo ikasturte hasierarako proposatzen dutena ATParekin.

Esleipen telematikoarekin, Leirek dagoen zerrenda guztietan eta dituen profilekin parte hartzea bermatzen da, bere interesaren arabera ordenatu ditzakeelarik. Aldiz oraindik lanpostuak euskaraz edo gaztelaniaz hautatu beharko lituzke, zerrenda banatuak bait dira eta ez dira profil bezala hartzen.

### Gure proposamena. Zerrenda integratuak.

Leirek dituen espezialitate zein profil guztiakin parte har dezake (PC gaztelania eta PE euskara profilak barne), eta modu honetan aske izanen da dituen espezialitate guztietan, dituen hizkuntza guztietan lanpostua hartzeko, berak hala nahi badu. Eleanitz den heinean, ikasketa horiek emateko gaitasun eta eskubidea du. Hau telematikoarekin erraz egin daiteke, eta zerrenda integratuak liratekeenez, berak aukeratuko luke lanpostuen eta hizkuntzen araberrako interes zerrenda.

Zerrend. posizioa	Izena	Espezialitateak	Profilak	Prestasun egoera
147	Leire	Haur, Lehen Hezkuntza	PC, PI, PE	1